



Lauaxeta BIDE BARRIAK bizi eta egin (bigarren zatia)

Zenon Uriguen, *Pasiotarra*

Euskal leen gaia, gizakia

Esaera oni buruz oso egokiro esaten dau Aita Beobidek “Gizonak gauza ederrenik asko egin arren, bear bada, garrantzitsuena, bearrezkoena, egin barik izten dau, au da: gizongintza, gizonaren eziketa ta moldaketa”

Lauaxetaren gaztaroa ondo aztertu ezkerro argi ta garbi ikusten da bere izaera, bere biziera ta bere buruaren argitasuna, urregorritzko meategia dala. Bai Lauaxetaren erraietatik sortzen diran jatorritzko poesiak eta poemak, berak sortuak, berak asmatuak, bere gisako bitxi bereziak. Baña gaitasun onen gañetik arrigarrizkoa da bere kristau izaera eta biziera, eta gizarte zeregiñetan bere buru izatearen nortasun berezia. Bikañak dira gaztediaren alde bere jokabideak, emakumeen onerako ardura eta asmo goragarriak bera izan zan Eusko idazleen bazkidea, baita be Kristau gizarte ekintzaren bazkide ta gidari, eta Eusko ikasle batzaren bazkide ta zuzentzaillea

Bai, egiaz:”Bide Barriak” gizaki barria, gaztedi barria, beti gora ta gora doana, Lauaxetaren antzera garaipena bizi ta ospatzeko

Gerraren zitalkeria

Gizartearentzat kalterik okerrena beti izango da gerra zitala. Gerra zitala sortuta egun gitxi barru Aitzol abadea eta Lauaxeta jauna espetxeratuak eta fusilatuak izan ziran Maixua eta ikaslea, bata zein bestea gizon errugabeak, bakezaleak iñungo akatsgabeak, idazle bikaiñak. Lauaxeta jauna apirillaren 1937an, atxilotua izan zan Gernikan. Eta Gasteiz urian esperraturua Karmeldar monjen Ikastetxean.

Eta bertan eriotzara zigortua. Mariano abadea egon zan otoi-tzak eta elizakoak egiten eta azkenengo egunetan entzuten eutsozan Lauaxetari otoitz bero ta zintzoak: "Jesus, nire bizia, zu zara bein betikoa".

Aita Patxi, Pasiotarra joan zan Lauaxeta ikusi eta laguntzera, baña poliziak, gogor eta irañez uxatu eta aldendu eben. Lauaxeta fusilatua izan zan ekaiñaren 25an. Moreno abadeak diño: "*ikusi nebazan bere buru azurrak agirian*". Eta begirune aundienagaz "*batu nebazan domiñak gurutze bat bere bularrean eta Ama Birjiñaren erro-sarioa*". Kristoren martiri baten moduan il zan gure Esteban Urkiaga, "Lauaxeta" jaun agurgarria. G.B. "Finis coronat opus" amaierak koroatzen dau bizitza, Bide Barriak asmatu eta bizirik. Lauaxetaren antzera.

Lauaxetaren azken agurra

Lauaxetak, il zorian, amari egin-dako azken agurra, poesiaren kutsu berezi eta olertiaren goi-eragite bitxiarekin, ondare biotzbera idatzi eban. Ara emen bere argi-printzak

"Goiz eder onetan erail bear nabe, txindor baten txintak gozotan naukela. El naiten leiora begiok intz gabe. Gorbeia barna iatort kañoi-ots itzela: or egazkin egaz odei lapur doaz. Guda gotzon baltzak odolez dakustaz, euren oin aurrean ugari gudari. Gazte argi orreik, eutsi lur ama-

ri! Bera baizen onik eztauko ludiak. Baña Jaun altsua orain ken nai nozu? Bildots baten antzez lotuta nauko ni bear nauanean neure Aberriak? Aren deia dantzut arma ots larrian. Izkillu tarteko dirdira bizian mendi goietan. Eriotz betorkit!. Bertan eder dira azkenengo arnasak.

Arte adartsu babes toki bekit, neure gezi zorrotz, eriotz zauria txastatu dagientzat etsaien esamesak Zuzentzaren maitez bil diran semeekin ixuri daidala bizitz iturria.

Lurra estal bedi odol larrosakin!

Askatasun arnasak betiko bil zagiz. Antxe makur zaite, nire desira, geure lur amaren besarte, gozoan. Eta anai maiteok burrukari iñoiz ilgo eztan euskoen amari.

Itxaron auxe sort bekit gogoan Jauna, eriotz au, arren emoidazu; koldarrentzat





itxi larrosen usaña. Askatasun deuna bial egistazu, lasai artzeko arrotzen iraña, gorputz onek bakez atsedendagian erri askatuen egun aundirarte. Gudan jaus nadilla zuzentzaren alde, ez ormaren atzean, goiz eder argian.

Eta bake deuna sortuko danean neure azur utsak besteenakin batu, eresi gurenaz lagundu obi bakar arte. Baña, arren, bizitu oroimenaren maitasuna gurutzaren itzalpean. Beragan ditxarot. Jesusen fedea besterik ez daukot. Erri zintzo onenak jagon dagiala il gintzanen arnasa, il gintzanen oñazea”

“Lauaxetak, bere bizitza baiño geiago maite izan zituen Euskadi, askatasuna eta demokrazia. Dana emon bear jako maite dan askatasunari” (Jose Manuel Bujanda A.)

Lauaxetak Bide Barriak, bizi eta egin zituan bere gaztedian, eta udabarri baten moduan loratu ziran bere asmo zoragarriak bere biziari errenta eta emaitza gorena emonik.”Ad augusta, per angusta” “Garaipena neke askoren aintza ta saria da”

